


**VILLA MANUELA**  
D MAILA**ATEGORRIETAKO GALTZARA ZAHARRA 34**

**Ramon Kortazar, 1909.**

**Deskribapena**

Ramon Kortazarrek beste estilo bat probatu zuen villa hau diseinatzeko unean. Kasu honetan, neotudor bilbaduraren arkitekturan irudi pintoreskoagoa lortzeko inspirazioa bilatzen du, malda handiko arbelezko estalki jokoari eta eraikuntza sistema tradizionalerako bilbadura bidezko apaindurari dagokienez. Europa erdialdeko hirietako sorta gotikoko arkitektura birsortzen duen udaldiko arkitekturaren berezko balibideak dira, eta estalki joko bizian eta apaindura gainjarrian ikus dezakegu hori guztia. Beheko solairua, lehena, eta teilatupeko okupazio bat hartzen ditu profilak. Estalki eta atal irtenen jokoaren barnean, kopetea eta sarrerako ateen eta balkoi ateen gaineko hegal itxurako hegazpeak nabarmentzen dira, baoak euritatik babesteko eta eraikinaren konposizio lerro nagusiak nabarmentzeko baitira. Badira isurki jakobinoa duen txapitula bat isurki nagusi baten gainean, eta fatxadako arrapala-txapitula bat beste isurki nagusiaren gainean. Fatxadak hegazpe batzuk dauzka, eta hego fatxadako balkoi gaineko begiratoki txiki baten gainean, isurialde bakarreko estalkia, eraikineko beste isurkin guztiak bezala arbelez errematatutako hegal txiki batez. Iparreko fatxadan eta horma pikoko estalkian definitutako maldei segituz, isurialde biko teilatutxoak dauzka barnealdeko eskaileraren eskailburuetako leihoen hegalaren gainean. Babes estalkiak ageri dira, halaber, isurialde bakarrekoak, fatxada muturretako bao bietan, egitura jabaloidun txiki batez osatuak.

**D mailako babes erregimen espezifikoak**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: ez.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: bilbadurak, estalkiak eta irteengueak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzak: ez.